Eragile sozialek gogor aldarrikatutakoari esker, Osakidetzak sustaturiko prebentzio kanpaina baten barruan kokatu ziren hiriko farmazia batzuetan preserbatibo makinak. Helburua zen preserbatiboaren erabilera bultzatzea hiesa eta sexu bidez transmititutako beste gaixotasun batzuk prebenitzeko neurri eraginkor gisa, baita nahi ez diren haurdunaldiak ekiditeko ere. Nabarmendu beharra dago, gainera, neurri horiek 16 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzenduta zeudela. Modu berean, ezin dugu ahaztu, neurriak hartu zirenean, kutsatze kasu ugari ari zirela diagnostikatzen preserbatiboak ez erabiltzeagatik. Hortaz, inork ezin du zalantzan jarri antisorgailuen makinek sexu bidez transmititutako gaixotasunak prebenitzeko ezinbesteko osasun lana egin dutela, egiten dutela eta egiten jarraitu beharko luketela.

2017ko otsailean jakin genuen 2016ko azken hilabeteetan, antisorgailu makinak zituzten farmaziak bisitatzeaz eta haiek kentzeko agindua emateaz arduratu zirela udaltzainak.

Horrek Farmazeutikoen Elkargoaren eta hiriko hainbat eragileren harridura eta kezka sortu zuen; horien artean, sexu harreman osasuntsuen aldeko etengabeko kanpainetan lanean ari diren Gehitu, Harribeltza, Acasgi, Ehgam edota Bilgune Feminista.

Horren aurrean, Udalbatzak aho batez eskatu zion Udal Gobernuari hirian gelditzen diren fatxadetako makinak mantentzeko. Udal Gobernuak berak antisorgailu makinen eredua

JUSTIFICACIÓN

Gracias a las constantes reivindicaciones de las y los agentes sociales, y dentro de una campaña de prevención fomentada por Osakidetza, se instalaron máquinas expendedoras de preservativos en algunas farmacias de la ciudad. La finalidad era impulsar el uso del preservativo como medida eficaz para prevenir el sida y otras enfermedades de transmisión sexual, así como evitar embarazos no deseados. Es preciso subrayar, además, que estas medidas estaban dirigidas a jóvenes de entre 16 y 30 años. Asimismo, no hay que olvidar que cuando se tomaron dichas medidas se estaban diagnosticando muchos casos de contagio por no usar preservativos. Por tanto, nadie puede poner en duda que las máquinas expendedoras de preservativos han realizado, realizan y deberían seguir realizando una labor sanitaria imprescindible para prevenir enfermedades de transmisión sexual.

En febrero de 2017 supimos que en los últimos meses de 2016 la Guardia Municipal visitó las farmacias que habían instalado estas máquinas de preservativos y ordenó su retirada.

Este hecho produjo perplejidad y preocupación en el Colegio de Farmacéuticos y diversos agentes sociales de la ciudad, como son Gehitu, Harri Beltza, Acasgi, Ehgam o Bilgune Feminista, asociaciones que trabajan permanentemente en campañas a favor de relaciones sexuales saludables.

Ante ello, el Pleno pidió unánimemente al Gobierno Municipal que mantuviera las máquinas de las fachadas que quedan en la ciudad. El propio Gobierno Municipal adquirió el

eta udal eraikinetan jartzeko aukera aztertzeko konpromisoa hartu zuen Donostiako zenbait eragilerekin.

compromiso de estudiar junto con agentes sociales el modelo de las máquinas de anticonceptivos y la posibilidad de instalarlas en edificios municipales.

Martxotik hona bost hilabete igaro dira eta uztaileko Pertsonen Zerbitzu Batzordean azaldu zitzaigunez, egiten ari den azterketa amaitutakoan emango zaigu haren berri. Besterik ez. Bost hilabete joan diren arren.

Ya han transcurrido cinco meses desde marzo, y en la Comisión de Servicios a las Personas de julio se nos indicó que una vez haya concluido el estudio que se está realizando se nos daría cuenta del mismo. Nada más. Y ello a pesar de que ya han pasado cinco meses, tal y como hemos mencionado anteriormente.

Modu berean gogorarazi beharra dago Udalbatza osatzen dugun taldeok, 2016ko abenduaren 1aren ospakizunaren aurrean, Parisko Adierazpena onartu genuela eta bertan, hirugarren puntuan, arriskuaren, ahultasunaren eta transmisioaren zergatiei aurre egiteko neurri gisa, hauxe adostu genuela: Behar diren baliabide guztiak martxan jarriko ditugu, hala nola udal ordenantzak, eta beste hainbat tresna, pertsonek GIB eta beste hainbat gaixotasun izateko arriskuei aurre egin ahal izateko. Harreman estuan lan egingo dugu komunitateekin, zerbitzu hornitzaileekin, legea betearazteko arduradunekin eta beste hainbat erakunderekin, eta baita ahultasuna duten eta baztertuta dauden kolektiboekin ere, eta horien artean sartuko dira, baztertutako auzoetako biztanleak, pertsona desplazatuak, emakume gazteak, sexu langileak,droga xiringa bidez hartzen dutenak, migratzaileak, beste gizonekin izaten sexu harremanak izaten dituzten gizonak, eta transexualak, tolerantzia sortzeari eta sustatzeari begira.

En ese sentido, es preciso recordar que los grupos que formamos el Pleno aprobamos la Declaración de París con motivo de la celebración del 1 de diciembre, y que en el tercer punto de la misma, propusimos lo siguiente como medida para hacer frente a las causas del riesgo, la vulnerabilidad y la transmisión: Emplearemos todos los medios necesarios, como ordenanzas municipales y otras herramientas, para abordar los factores que hacen que las personas sean vulnerables al VIH y a otras enfermedades. Trabajaremos estrechamente con las comunidades, los proveedores de servicios, los encargados del cumplimiento de la ley y otros organismos, así como con las poblaciones marginadas y vulnerables, incluidos los y las habitantes de barrios marginales, las personas desplazadas, las mujeres jóvenes, los trabajadores y trabajadoras sexuales, las personas que se inyectan droga, las personas migrantes, los hombres que tienen relaciones sexuales con otros hombres y los y las transexuales, a fin de crear y promover la tolerancia.

Horiek horrela, sexu eta osasun harremanen prebentzioan urteetan egin den lana eta hartu diren neurriak arriskuan egon daitezkeelako, Udal Gobernuak bere konpromisoa bete behar

En consecuencia, y considerando que el trabajo realizado y las medidas adoptadas durante años en materia de salud y de prevención de los riesgos existentes en las relaciones

duela eta Udaletik burutzen ari den lana lehenbailehen herritarrekin lanean ari diren eragileekin kontrastatu behar dela ulertuta, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

sexuales pueden estar en peligro, así como entendiendo que el Gobierno Municipal ha de cumplir su compromiso y, en este sentido, debe contrastar cuanto antes el trabajo que se está realizando desde el Ayuntamiento con los agentes que están trabajando con la ciudadanía, la concejala abajo firmante presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari antisorgailuen makinak bide publikoetan eta udal eraikinetan jartzeko Obra eta Proiektuetako Zuzendaritza egiten ari den lana lehenbailehen Udalbatza osatzen dugun talde politikoekin eta lanean ari diren eragileekin kontrasta dezala.

1.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Municipal a que contraste lo antes posible, tanto con los grupos políticos que conforman la Corporación como con los agentes sociales, el trabajo que está realizando la Dirección de Proyectos y Obras sobre la instalación de máquinas expendedoras de preservativos en la vía pública y en los edificios municipales.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari 2017ko abenduaren 1eko Hiesa-ren Kontrako Nazioarteko Egunerako, Udal Gobernuak, eragileekin batera aldarrikapena antolatzeaz gain, hirian hartuko diren neurriak publiko egitea, dagokion sentsibilizazio kanpainarekin batera.

2.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Municipal a que, de cara al 1 de diciembre de 2017, Día internacional contra el sida, además de elaborar junto con los agentes sociales la correspondiente declaración, haga públicas las medidas que se tomarán en la ciudad al respecto y lleve a cabo la oportuna campaña de sensibilización.

3.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari 2016an onartutako Parisko Adierazpenean jasotako neurriak betetzea eta lanean ari diren eragileak horretaz informatzea.

3.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Municipal a que cumpla las medidas recogidas en la Declaración de París en 2016 e informe de ello a los diversos agentes que están trabajando en este campo.

Donostian, 2017ko uztailaren 14an

En Donostia, a 14 de julio de 2017.

Naiara Sampedro Perez
EHBilduko Zinegotzia".

Naiara Sampedro Pérez,
concejala de EH Bildu".

Eztabaida hasita, Naiara Sampedro Perez andreak, Amaia Martin Garin andreak eta Enrique Ramos Vispo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as Dª. Naiara Sampedro Perez, Dª. Amaia Martín Garín y D. Enrique Ramos Vispo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.2.26. Kontrol mozioa, PP Taldeak aurkeztua, Terrazen Ordenantza dela eta.**

“Miren Albistur Garmendiak, Alderdi Popularreko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, MOZIO hau aurkezten du, Gune Publikoetako Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) Terrazen Ordenantzaren harira aurkeztutako interpelazioaren ondorio dena, Udalbatzan azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA

Duela hiru urte, 2014ko martxoaren 27an, Donostiako jabetza eta erabilera publikoko lurzoruak ostalaritzarako nola okupatu arautzen duen Ordenantza, Terrazen Ordenantza deritzona, onartu zen behin betiko.

Aurreko legegintzaldiaren amaieran, aldaketa batzuk egin ziren ordenantza horren artikuluetan, eta 2015eko uztailean egindako osoko bilkuran onartu ziren azkenean.

**II.2.2.26. Moción de control que presenta el Grupo PP sobre la Ordenanza de Terrazas.**

“Miren Albistur Garmendia, portavoz del grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCION a consecuencia de la Interpelación presentada en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre la Ordenanza de Terrazas.

JUSTIFICACION

Hace tres años, 27 de marzo 2014, que se aprobó definitivamente la Ordenanza reguladora de las ocupaciones de suelo de dominio y de uso público para la hostelería en Donostia / San Sebastián, conocida como Ordenanza de terrazas.

A finales de la legislatura pasada se llevaron a cabo una serie de modificaciones en el articulado que finalmente fueron aprobadas en el pleno de julio 2015.

Ordenantza horrek indarrean eman dituen hiru urte hauetan antzeman da zenbait puntu aldatu beharko liratekeela, arauak egoera batzuetara egokitu daitezen.

En estos tres años de regulación se han detectado algunas cuestiones que se deberían de modificar para que la regulación se ajuste a determinadas situaciones.

Martxoan, gobernuari interpelazioa egin genion, ordenantza hori aldatzeko izapideak egiten hasteko aukeraz. Harako hartan, argi gelditu zen Udalean gobernatzen duten bi taldeak ez zetozela bat proposatu beharreko aldaketei zegokienez, nahiz eta biek adierazi beharrezkoa zela ordenantza hori hobetzea eta beronen artikulu batzuk zuzentzea. Deitoragarria iruditzen zaigu gobernua ez dela gai izan uda hasi aurretik akordio bat lortzeko, ordenantza aldatzeko izapideak haste aldera.

En el mes de marzo interpelamos al gobierno sobre la posibilidad de iniciar los trámites para la modificación de esta ordenanza. En aquella ocasión quedó claro que los dos Grupos que gobiernan en el ayuntamiento tenían sus diferencias con respecto a las modificaciones a proponer a pesar de haber manifestado ambos la necesidad de mejorar y corregir algunos articulados de la misma. Lamentamos que el Gobierno no haya sido capaz de llegar a un acuerdo antes del inicio de la temporada estival para iniciar los trámites para la modificación.

Joan den uztailaren 10eko Batzordean, alkateak jakinarazi zuen gobernuko bi taldeak lanean ari zirela ordenantzan zer alderdi aldatu zehazteko. Aldatu beharreko alderdien inguruan dituzten aldeak argitzen dituzten bitartean, interesgarria izango litzateke Terrazen Ordenantza aldatu aurretik arauak erasan ahalko dien herritarrei eta antolakunde esanguratsuenei iritzia eskatzea, hori ezartzen baitu legeak.

En la comisión celebrada el pasado 10 de julio el alcalde anunció que los dos Grupos del gobierno estaban trabajando para determinar los aspectos de la ordenanza que tienen previsto modificar. En tanto en cuanto, esclarecen sus diferencias con respecto a los aspectos a modificar, sería interesante recabar, con carácter previo a la modificación de las norma, en este caso la modificación de la “Ordenanza de Terrazas”, la opinión de los ciudadanos y de las organizaciones más representativas que potencialmente se puedan ver afectados por la misma, que es lo que establece la Ley.

Hori dela eta, Alderdi Popularrak MOZIO hau aurkezten du:

Es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gobernu Taldeari Terrazen Ordenantza ahalik eta lasterren kontsultara aurkezteko, aldez aurreko izapidea denez, Ordenantza aldatzeko prozesua abian jartzeko.

El Ayuntamiento Pleno insta al Equipo de Gobierno a presente a la mayor brevedad el trámite de Consulta previa la Ordenanza de Terrazas con el fin de poner en marcha el proceso de modificación de la Ordenanza.

Donostian, 2017ko uztailaren 14an.

Miren Albistur Garmendia,
Alderdi Popularraren bozeramailea".

En Donostia / San Sebastián, a 14 de Julio de 2017

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular".

Eztabaida hasita, Miren Albistur Garmendia andreak, Amaia Martin Garin andreak, Olaia Duarte Lopez andreak eta Alkate-Udalburuak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as Dª. Miren Albistur Garmendia, Dª. Amaia Martín Garín, Dª. Olaia Duarte López y Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 5 – EH BILDU.**
**ABSTENTZIOAK: 1 – IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 5 – EH BILDU.**
**ABSTENCIONES: 1 – IRABAZI DONOSTIA.**

---------------

**II.2.2.27. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Udalak babestu dituen elementuei dagokien trataera dela eta.**

"Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko uztailaren 10ean Gune Publikoen eta Obra eta Hiri Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

**II.2.2.27. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el tratamiento de elementos que protege el Ayuntamiento .**

"Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno. La moción es consecuencia de la interpelación tratada en la Comisión de Espacio Público (Obras y Servicios Urbanos) celebrada el 10 de julio de 2017.

JUSTIFIKAZIOA

Apirileko udalbatzarrean jatorrizko Kontxako Barandaren etorkizuna hizpide izan zen, gaiari buruzko ekimena aurkeztu baitzuen talde honek, bai eta zinegotzi-ordezkariak azalpenak eman ere. Azalpenetan, aitzitik, zinegotzi ordezkariak ez zuen babestuta dauden elementuen inguruko aipamenik egin. 1999an baranda osorik berritu zenean, 271 piezak banan bana kendu, berritu eta berriz ere jarri ziren. Horregatik, aurtengo obrak hasi arte bertan egon diren zatiak (edo ukitu ez diren zonaldeetan daudenak) duela 100 urte Juan Rafael Alday udal arkitektoak diseinatu zituen eta bere agindupean jarri ziren berberak dira; alegia, jatorrizko piezak. Aipamen berezia ere merezi du Kontxako Erlojuetako zatien artean dagoen berezitasunak; paseoko zati guztiek duten lorea barrura begira dagoelako, baina parte horretan itsasoari begira dagoen lorea duen zatia dagoelako, eta horregatik bereziagoa.

Zinegotzi ordezkariak azaldu zuen erabakita zegoela jatorrizko pieza kendu eta beste bat jartzea; helburua zela, izan ere, molde berri bat egitea eta horrekin, hemendik aurrera, zati guztiak egitea. Esan ere esan zuen jakitun zela zonalde horretako berezitasunaz, baina nola berrituko zen oraindik ere erabakitzeke zegoela. Aurreratu zuen, halaber, kendutako zatiak udal biltegira eramateko asmoa, baina etorkizunean beraiekin zer egin ez zuela erabakita Udal Gobernuak. Batzordean ere mintzagai izan zen gai hauen ezagutza nork ote duen edo/eta nori

JUSTIFICACIÓN

Uno de los temas tratados en el Pleno Municipal celebrado en el mes de abril fue el futuro de la barandilla original de la Concha, tema planteado en una iniciativa presentada por este grupo y sobre el que el concejal delegado dio algunas explicaciones. Sin embargo, el concejal no hizo ningún comentario sobre los elementos protegidos. Cuando, en 1999, se renovó completamente la barandilla, se retiraron 271 piezas de una en una, se renovaron y volvieron a colocar. Por tanto, las piezas que se encontraban allí antes de que comenzaran las obras de este año (así como las que se encuentran en las zonas en las que no se ha intervenido) son las mismas que el arquitecto municipal Juan Rafael Alday diseñó hace 100 años y que fueron colocadas bajo su dirección. Es decir, se trata de las piezas originales. Por otro lado, hay que destacar una característica peculiar que presentan las piezas situadas entre los Relojes de La Concha y que consiste en que, mientras que la flor que hay en todas las piezas del paseo mira hacia adentro, en esa parte, hay una pieza cuya flor mira al mar, lo que hace que su singularidad sea mayor.

Según manifestó el concejal delegado, se había decidido que se quitara la pieza original y que fuera sustituida por otra. El objetivo de todo ello es hacer un molde nuevo para, en adelante, poder elaborar con él todas las piezas. También dijo que era consciente de la naturaleza particular de esa zona, pero que todavía estaba por decidir cómo se renovaría. Así mismo, informó del propósito de llevar todas las piezas que se retiraran al almacén municipal, pero dijo que el Gobierno Municipal no había decidido qué hacer con ellas en el futuro. En la comisión

galdetu behar zaion. Horiek horrela, apirileko udalbatzarrean proposatu genuen elementuen inbentarioa egitea, jatorrizko piezen jarraipen egokia ziurtatze aldera, baina Udal Gobernuak ez zuen aintzakotzat hartu eskaera. Halaber, proposatu genuen Kontxako elementu babestuen inguruan adituen iritziak jasotzea, Ondarearen Inguruko Foroan eta Gipuzkoako Foru Aldundian, eta honek ere ez zuen jaso Udal Gobernuaren onespena.

también se preguntó quién tendría conocimiento de estos temas y/o a quién habría que consultar. Por todo ello, en el Pleno celebrado en abril propusimos que se realizara un inventario, con el fin de asegurar un seguimiento adecuado de las piezas originales, pero el Gobierno Municipal no tuvo en cuenta nuestra solicitud. También propusimos que se recabara la opinión de las y los expertos sobre los elementos protegidos de La Concha, tanto en el Foro del Patrimonio como en la Diputación Foral de Gipuzkoa. Esta propuesta tampoco recibió la aprobación del Gobierno Municipal.

Aurreikusi genuen moduan, jatorrizko piezak eskuratzeko eskaerak iristen hasi dira. Izan ere, berriki jakin dugunez, martxoan Lepeko Udalak duela 100 urteko barandaren 100 metro eskatu zizkion Donostiako Udal Gobernuari, eta antza, Eneko Goia alkateak emateko asmoa du. Pentsatzekoa da helburu ezberdina baina antzeko interesa izan dezaketen pertsona edo erakunde gehiago egon daitezkeela, bai jatorrizko pieza arruntei dagokienez, bai bereziagoei dagokienez ere, Donostian zein Donostiatik kanpora.

Tal como habíamos previsto, han comenzado a llegar solicitudes de personas o entidades interesadas en conseguir algunas de las piezas originales. Por ejemplo, hace poco hemos sabido que, en marzo, el Ayuntamiento de Lepe ha pedido al Gobierno Municipal de San Sebastián 100 metros de la barandilla, que, como ya hemos dicho, tiene 100 años. Y, según parece el alcalde, Eneko Goia, tiene la intención de dárselos. Es lógico pensar que puede haber más personas o entidades, tanto en San Sebastián como fuera de ella, que, aun con un objetivo diferente, tengan un interés similar, tanto en lo que respecta a las piezas originales más comunes como a las que presentas características más singulares.

Horregatik guztiarengatik, jatorrizko piezen jarraibidea egin eta haien etorkizuna nolabait erregulatu beharra dago, aurreratu genuen moduan, eta gero eta ageriagoa den moduan. Orain arte, aldiz, biltegira eramango zituztela esateaz harago, irizpide falta erakutsi du Udal Gobernuak piezekin zer egingo duen eta nola egingo duen galdetu zaionean; eman, zozketatu, enkantean jarri... denetarik entzun da, udal batzordeetan eta batzordeetatik kanpo.

Por ello, es necesario hacer un seguimiento de las piezas originales y regular, de algún modo, su futuro, tal como manifestamos anteriormente y tal como se está haciendo cada vez más evidente. Sin embargo, hasta ahora, a parte de decir que las llevarán al almacén, el Gobierno Municipal ha demostrada falta de criterio cuando se le ha preguntado qué va a hacer con las piezas y cómo va a llevar a cabo la decisión que adopte: donarlas, sortearlas, subastarlas… se ha comentado todo tipo de posibilidades en

las comisiones municipales y fuera de ellas.

HOEBPE/PEPPUC-ren F babespean dauden elementuekin izan beharreko jokabideen aukerak sakonago aztertzea komeni da, beraz, erretiratzen diren jatorrizko piezekin zer egin daitekeen aurreikusiz: guztiak inbentariatu, batzuk edo guztiak gorde, batzuei bigarren erabilera eman edo birziklatu edo... Izan ere, elementu horien izaeragatik, behin baino gehiagotan jatorrizkoak kendu eta berriak jartzea suerta daiteke; baita, kentzen direnen artean, elementu guztiek balore propio edo sinboliko bera ez izatea ere. Azkeneko hauen kasuan, egiten dena egiten dela, izaera publikoa izango duten eskaintzak bideratzea (enkanteak, eskaera bidez, zozketak...) eta haiek erabiltzeko protokolo argiak izatea ez da soberakoa. Horrela edonork jakingo du zein den, kasuz kasu, egon daitekeen aukera; zein den, eta, interesa izanez gero, nola egin behar duen berdintasunean aleren bat eskuratu nahi badu.

Sería conveniente estudiar más profundamente las posibilidades de actuación con respecto a los elementos que tienen el nivel de protección F según el PEPPUC y, por lo tanto, prever qué puede hacerse con las piezas originales que se retiren: inventariarlas todas, conservar todas o algunas, dar otro uso a algunas de ellas, reciclarlas… Y es que, debido a la propia naturaleza de dichos elementos, puede ocurrir que, en más de una ocasión, se retiren los originales, para sustituirlos por otros nuevos. Y también puede suceder que todos los elementos no tengan el mismo valor simbólico o propio. Sea lo que sea lo que se haga en el caso de estos últimos, habría que organizar algún tipo de oferta pública (subastas, presentación de solicitudes, sorteos…). Y tampoco estaría de más que se elaboraran protocolos detallados sobre la forma de llevarlas a cabo... Así, cualquier persona o entidad interesada podrá saber qué posibilidades existen en cada caso. Qué elementos se pueden conseguir y cómo se debe proceder si se quiere obtener alguno de ellos, siempre en régimen de igualdad.

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako MOZIOA:

Por todo lo anteriormente expuesto, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN:

Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari, HOEBPE/PEPPUC delakoaren bidez F babespean dauden elementuak berritzerakoan:

El Pleno del Ayuntamiento solicita al Gobierno Municipal que, a la hora de renovar los elementos a los que el PEPPUC asigna el nivel de protección F,:

1,- Berritze sistema egokiari buruzko iritzi kontrastatuak jaso ditzala, Udaleko sail eta arduradunez gain (Hirigintza, Mantenimendua, San Telmo... kasuan kasu), Ondarearen inguruko Foroan eta Gipuzkoako Foru

1.- Recabe opiniones contrastadas sobre el sistema más adecuado de renovación, consultando tanto a los diferentes responsables y departamentos municipales (Urbanismo, Mantenimiento, San Telmo…, es decir, a quien

Aldundian.

corresponda en cada caso) como al Foro del Patrimonio y a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

2,- Behin betiko erretiratuko diren elementuen inbentarioa egin dezala, etorkizunean har daitezkeen erabakien ondoren ere elementuen jarraipena errazteko.

2.- Elabore el inventario de los elementos que van a retirarse de forma definitiva, para facilitar el seguimiento de dichos elementos tras las decisiones que puedan adoptarse en el futuro.

3,- Berritze lanetan behin betiko erretiratuko diren elementuak inbentariatu ondoren, piezen etorkizuna erabakitzeari begira, hobetsi dezala haiek gordetzea eta ondoren, eskaintza publikorako alerik geratzen bada, publikoki, garaiz eta egoki, iragarri dezala zein den pieza horiek eskuratzeko erabiliko den eskaintza publikorako sistema (enkantea, zozketa, eskaera bidez...).

3.- Una vez inventariados los elementos que van a retirarse de forma definitiva en las obras de renovación, que el Gobierno Municipal, en las decisiones que adopte sobre el futuro de las piezas, dé preferencia a su conservación y si, posteriormente, quedara algún ejemplar para oferta pública, que anuncie públicamente, con la antelación suficiente y de forma adecuada, qué procedimiento público se utilizará para poder obtener dichos ejemplares (subasta, sorteo, presentación de solicitud…).

Donostian, 2017ko uztailaren 14an

San Sebastián, 14 de julio de 2017

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Amaia Martin Garin andreak eta Enrique Ramos Vispo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as Dª. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, Dª. Amaia Martín Garín y D. Enrique Ramos Vispo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 – (5) EH BILDU,(3) PP, (1) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 – (5) EH BILDU, (3) PP, (1) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

**ABSTENTZIOAK: 0.**

**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.2.28. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, udalak agindutako kaleratze kasuetan nola jokatu erabakitzeko irizpideak direla eta.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriagak, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, Udalak agindutako kaleratze kasuetan nola jokatu erabakitzeko irizpideei buruzko KONTROL MOZIO hau aurkezten du. Mozioa Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordeak joan den maiatzaren 15ean aztertutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Segurtasun egoera oso larria zela argudiaturik, Udalak Oriamendi pasealekuko bi etxebizitza husteko agindu zuen orain dela bi urte. Gaur egun, agindua eman zenetik bi urte beteak direnean, Donostiako bi familia horiek etxera itzuli ezinik jarraitzen dute: batetik, segurtasun arrazoiengatik; baina, bestetik, baita auzia luzarazi duten zirkunstantzia esplikaezinengatik ere. Hauxe da egoera harrigarri horrekin loturiko gertaeren kronologia:

2015eko uztaila. Oriamendi pasealekuko 82. zenbakiko etxebizitzaren jabeek, kale bereko 86. zenbakiko etxebizitzari erantsiriko horman (lehen aipaturiko etxebizitzaren gainean) pitzadurak zeudela ikusi, eta txosten geologiko bat igorri zioten Donostiako Udalari, eta Udalak etxebizitza husteko agindua eman zuen. Antza

**II.2.2.28. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU sobre criterios de actuación en caso de desalojo ordenado por el Ayuntamiento.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, concejala del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico de Pleno presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, sobre criterios de actuación en caso de desalojo ordenado por el Ayuntamiento. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada en Comisión Informativa de Desarrollo y Planificación del Territorio el pasado 15 de mayo.

JUSTIFICACIÓN

Hace dos años el Ayuntamiento, ante una situación grave de seguridad ordenó el desalojo de dos viviendas en el Paseo de Oriamendi. Tras dos años de de la orden dos familias donostiarras todavía no han vuelto a sus viviendas, dado que junto con las cuestiones relativas a la seguridad se han dado circunstancias de dilación inexplicables. La cronología de los hechos de esta sorprendente situación es la siguiente:

Julio de 2015. El Ayuntamiento dicta una orden de desalojo, tras la presentación de un informe geológico de los propietarios del Paseo de Oriamendi nº 82 que habían observado la aparición de distintas grietas en el muro que se había hecho en la propiedad del Paseo de Oriamendi nº 86 (por encima de la casa

denez, horma 1976an eraikia da, baina Udalean ez da inolako baimenik ageri.

anteriormente citada), muro al parecer realizado en 1976 y del que no consta licencia del Ayuntamiento.

Horiek horrela, Udalak Exekuzio Agindu bat eman zuen, eta, bertan, etxea 3 hilabeteko epean husteko agindu; halaber, jabeei ohartarazi zien zigorrak ezarriko zizkiela epea betetzean etxea husten ez bazuten, bai eta etxea husteko agindua Udalak berak modu subsidiarioan exekutatuko zuela ere.

Al mismo tiempo se dicta Orden de Ejecución con un plazo señalado de 3 meses, con la advertencia de la imposición de sanciones en caso de incumplimiento; así como de la ejecución subsidiaria de las mismas por parte del Ayuntamiento.

2015eko abuztua. Udal agindua betetze aldera, Donostiako bi familia behartu zituzten beren ohiko etxebizitza uztera.

Agosto de 2015, en cumplimiento del mandato municipal, dos familias donostiarras, ante la situación de peligro, se ven obligadas a desalojar su residencia habitual.

2015eko urria. Udalak emandako epea bukaturik, Oriamendi pasealekuko 86. zenbakiko etxebizitzaren jabeek ez zuten Udalaren agindua bete. Udalak ez zuen hertsapen isunik ezarri.

Octubre de 2015. Finaliza el plazo otorgado por el Ayuntamiento sin que se cumpla, por parte de los propietarios de Oriamendi 86, la orden emanada por el Ayuntamiento. Tampoco se imponen multas coercitivas.

2015eko azaroa. Udalak beste Exekuzio Agindu bat eman zuen, eta etxea hilabeteko epean husteko agindu.

Noviembre de 2015. El Ayuntamiento dicta una nueva Orden de Ejecución concediendo un nuevo plazo de 1 mes.

2015eko abendua. Udalaren aginduak bete gabe jarraitzen zuen. Agindua bete ez arren, Udalak ez zien jabeei hertsapen isunik ezarri.

Diciembre de 2015. Se vuelve a incumplir la Orden dada por el Ayuntamiento. Tampoco se imponen multas coercitivas ante este nuevo incumplimiento flagrante.

Hilabeteak joan hilabeteak etorri, bi familia donostiar horiek etxetik kanpora jarraitzen zuten. 2016ko martxoan, bi aldeen abokatuak bildu ziren. Oriamendi pasealekuko 86. zenbakiko etxebizitzaren jabeek Udalak emandako agindua betetzeko beharrezkoak ziren jardunbideak onartzeari dagokionez, bileran ez zen bat ere aurrerapausorik eman.

Mientras que estas dos familias donostiarras siguen desalojadas de sus domicilios, van pasando los meses y en marzo de 2016 se convoca a los abogados de ambas partes. En la citada reunión no se avanza en la asunción, por parte de los propietarios del Paseo de Oriamendi 86, de realizar las intervenciones necesarias para dar cumplimiento a lo ordenado por el Ayuntamiento.

2016ko apirila. Udalak, ikusirik Oriamendi pasealekuko 86. zenbakiko etxebizitzaren jabeek agindua bete gabe jarraitzen zutela, exekuzio subsidiarioa martxan jartzeko prozesuari ekin zion.

Abril de 2016. El Ayuntamiento, ante los incumplimientos flagrantes por parte de los propietarios del Paseo de Oriamendi nº 86, comienza con el proceso para la ejecución subsidiaria.

2016ko maiatza. Oriamendi pasealekuko 86. zenbakiko etxebizitzaren jabeek exekuzio subsidiarioaren aurkako errekurtsoa jarri zuten, eta 3 hilabeteko beste epe bat eman ziezaietela eskatu.

Mayo 2016. Las propietarias del Paseo de Oriamendi nº 86 presentan un recurso contra la ejecución subsidiaria; solicitando la concesión de un nuevo plazo extraordinario de 3 meses.

Ikusirik Oriamendi pasealekuko 86. zenbakiko etxebizitzaren jabeek ez zutela ezer egiten, Oriamendi pasealekuko 82. zenbakiko etxebizitzaren jabeek beren jabetza konpontzeari ekin zioten. Horren berri eman zioten Udalari.

Ante la inacción de los propietarios de Oriamendi 86, los propietarios de Oriamendi 82 realizan las reparaciones que están en su propiedad. Dando cuenta de las mismas al Ayuntamiento.

Modu harrigarrian, eta horrek bi familia donostiarri zer-nolako kalteak eragiten zizkion aintzat hartu gabe, udalak 8 hilabete behar izan zituen epea luzatzeko baimena ematea onartzen zuela jakinarazteko. Luzapen hori, gainera, Udalak berak emandako agindua bitan urratu zutenei eman zien.

El Ayuntamiento tarda más de 8 meses en notificar la concesión, de manera sorprendente y sin ponderar los perjuicios que se estaban causando a dos familiar donostiarras, una nueva prórroga. Nueva prórroga que se otorga a quiénes, en dos ocasiones anteriores, habían incumplido la orden dada por el Ayuntamiento.

2017ko martxoa. Kaltetutako herritarrak alkatearekin eta Hirigintza Sostengagarriko ordezkariarekin bildu ziren. Salbuespenezko luzapena bukaturik, eta bi familiek beren ohiko etxebizitza utzi behar izan zutenetik 19 hilabete igaro ondoren, udalak konpromisoa hartzen du ez duela auzia gehiago atzeratuko.

Marzo de 2017. Los ciudadanos perjudicados se entrevistan con el Alcalde y el delegado de Urbanismo Sostenible. Comprometiéndose por parte del Ayuntamiento a que, una vez expirada la citada prórroga extraordinaria, y más de 19 meses después de haber tenido que abandonar su residencia habitual a qué no se producirán más dilaciones.

Salbuespenezko epea bukatua zenean, exekuzio prozesuak martxan jarri gabe jarraitzen zuen, eta udalak ez zuen inolako erabakirik hartu apirilaren 17an epea bukatu zenetik.

Pasado el plazo extraordinario concedido para la realización del proyecto y para la ejecución del mismo, el mismo no se había ejecutado, ni tan siquiera estaba en ejecución, y no se había adoptado ninguna decisión por parte del Ayuntamiento desde que venció el plazo el 17

de abril.

Kaltetutako familiek salatu dutenez, enpresa batek joan den uztailaren 5ean ekin omen zion udalaren agindua eragin zuten hormako pitzadurak konpontzeko lanei, eta, antza denez, lanak egun bakarrean amaitu omen zituzten. Bi urteren ondoren, bi familiek Udalaren berrespenaren zain jarraitzen dute, ea egun bakarrean egindako konponketek etxera segurtasun osoz itzultzeko aukera ematen dien.

Los datos más recientes según han denunciado las familias afectadas señalar que, por fin, este mes de julio, el día 5 una empresa acometió una serie de obras de reparación en las grietas de la pared que motivaron el desalojo obligado por el Ayuntamiento, finalizándolas, según parece en un día. Las familias están pendientes de que el Ayuntamiento confirme si las obras realizadas dan total seguridad para volver después de dos años a sus viviendas, en una obra realizada en un día.

Horrenbestez, bi auzi geratzen dira argitzeko kontakizun luze honetan: batetik, ziurtatzea bi familia donostiar horiek segurtasun osoz itzul daitezkeela beren ohiko etxebizitzetara; izan ere, etxetik kanpora eman duten denbora zeinen luzea izan den kontuan harturik, harritzekoa da kaleratzea eragin zuen arazoa egun bakarrean konpondu izana. Segurtasunari buruzko zalantzak eragiten dizkigu horrek.

Quedan así dos cuestiones sobre este largo relato: asegurar que estas dos familias donostiarras puedan volver a sus viviendas habituales, con absoluta seguridad, dado que choca el extenso plazo que han permanecido desalojadas frente a una obra solucionada aparentemente en un sólo día y que genera dudas sobre su seguridad.

Eta, bestetik, aurrerantzean ez da gehiago halako egoerarik gertatu behar. Donostiak Udalak gaitasun erabatekoa izan behar du halako kasuak behar bezala kudeatzeko, Udalak berak kaleratutako familiak ahalik eta denbora tarte laburrenean itzul daitezen etxera.

Y, segundo, que en adelante no se deben dar situaciones como ésta. El Ayuntamiento de Donostia debe tener capacidad de gestión que permita que las familias que el mismo ha obligado a desalojar su casa restablezcan su vida habitual en tiempos menores.

Horregatik guztiagatik, EH BILDU udal taldeak honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du:

Por todo ello, el grupo municipal de EH BILDU presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio udalak berak berma diezaiela Oriamendi pasealekuko beren etxebizitzak hustera behartu zituen bi familiei beren etxeetara ahalik lasterren eta segurtasun osoz itzultzeko duten eskubidea.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a asegurar que las dos familias donostiarras a las que les fue ordenado por el Ayuntamiento el desalojo de sus viviendas (P. Oriamendi) puedan volver con inmediatez y absoluta seguridad a sus viviendas.

2. Donostiako Udalbatzak, kontuan harturik halako kasuek zer-nolako kalteak eragiten dituzten, udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio udalak agindutako kaleratze kasuetan hartu beharreko neurri guztiak har daitezela albait lasterren, espedientearen tramitazio fase guztietan eta tartean diren eragile edo alde guztiei egindakoaren berri emanez.

3. Donostiako Udalbatzak, kontuan harturik halako kasuek zer-nolako kalteak eragiten dituzten, Udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio udalak agindutako kaleratze kasuetan lehenets ditzala hartu beharreko neurri guztiak, batetik, eta horien espedienteen tramitazioa, bestetik.

Donostian, 2017ko uztailaren 14an

Sinatua: Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
EH BILDU udal taldeko zinegotzia".

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a que en casos de desalojo de la vivienda, ordenado por el Ayuntamiento, teniendo en cuenta el perjuicio de las familias afectadas, se de celeridad a todas las medidas a tomar, en todas las fases de tramitación del expediente y ante todos los actores o partes implicadas.

3,- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a que en casos de desalojo de la vivienda, ordenado por el Ayuntamiento, teniendo en cuenta el perjuicio de las familias afectadas, se prioricen tanto la tramitación de sus expedientes como las medidas a tomar.

En Donostia, a 14 de julio de 2017

Fdo.: Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
Concejala del grupo municipal de EH BILDU".

Eztabaida hasita, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Miren Albistur Garmendia andreak eta Enrique Ramos Vispok jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Ricardo Burutarán Ferré, Dª. Miren Albistur Garmendia y D. Enrique Ramos Vispo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 – (5) EH BILDU, (3) PP, (1) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 – (5) EH BILDU, (3) PP, (1) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

ETA BILERAK BESTE XEDERIK EZ DUENEZ, LEHENDAKARITZAK, AKTAKO LEHEN ORRIAREN BURUAN ADIERAZITAKO EGUNEKO ARRATSALDEKO LAURAK ETA HAMAZAZPITAN AMAITUTZAT JO DU BILERA. ETA NIK, IDAZKARI NAIZEN ALDETIK, BILERAN ESANDAKO GUZTIAREN FEDE EMATEN DUT:

Y NO SIENDO OTRO EL OBJETO DE LA SESIÓN, LA PRESIDENCIA LA DECLARA TERMINADA, LEVANTÁNDOSE EL ACTO, SIENDO LAS DIECISEIS HORAS Y DIECISIETE MINUTOS DE LA FECHA EXPRESADA EN EL ENCABEZAMIENTO DE LA PRESENTE ACTA, DE TODO LO CUAL, YO, EL SECRETARIO, DOY FE:

LEHENDAKARIA: / EL PRESIDENTE:

IDAZKARIA: / EL SECRETARIO: